

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hauteskunde-erroldari buruzko erreklamazioak aste honetan egin behar dira

Herritarrek on line bidez, beren udalean edo telefonoz egiazta dezakete erroldan behar bezala izena emanda duten maiatzaren 24ko boto-eskubidea egikaritu ahal izateko

Martes, 07 de abril de 2015

Herritarrek aste honetan zehar egiazta dezakete hauteskunde-erroldan izena zuzen emanda duten eta, horren ondorioz, datorren maiatzaren 24an boto-eskubidea egikaritu dezaketen Nafarroako Parlamenturako, kontzejuetarako eta udalerrietarako hauteskundeetan. Gainera, hauteskunde-erroldan sartzeko edo kanporatzeko erreklamazioak egin nahi izanez gero, aste honetan bakarrik egin ahalko da, apirilaren 13ra arte, probintziako Hauteskunde Batzordean edo udal bakoitzean.

Erroldan izen-ematea kontsultatzeko hiru era daude. Udal bakoitzeko aurrez aurreko kontsultak jarraitzen du. Gainera, ziurtagiri digitala izanez gero, izapidea on line egin daiteke Estatistikako Institutu Nazionalan ([EIN](#)). Azkenik, 48 udalerritan eskaera telefonoz egiteko aukera dago, 010 zenbakira deituta Iruña eta Tuteran erroldatutakoen kasuan, eta 948 012 012 edo 012 telefono-zenbakietara deituta (0,34 € dei bakoitzaren kostua) gainerako [46 udalerritan](#).

Hautagai-zerrenden aurkezpena

Datorren astean, apirilaren 15etik 20ra, hautagai-zerrendak aurkezteko epea zabalduko da. Hauteskunde Batzordeak eta Nafarroako Administrazioak jadanik herritarren esku jarri ditu [2015eko hauteskunde](#)ei begira webgunean [hautagai-zerrende](#)ei lotutako formulario elektronikoak www.navarra.es atarian.

Bertan deskarga daitezke formularioak, esaterako: hauteskunde-koalizio bat eratzeko jakinarazpena; alderdi politiko, federazio edo koalizioen hautagai-zerrendaren aurkezpena; sinadura-orriak; hauteskundeetako dokumentazioa entregatu izanaren frogagiria; Administrazioaren ordezkariaren egiaztagutuna edo Foru Parlamentuaren egiaztagutuna.

Kontzejuetarako hauteskundeetarako beharrezko inprimakiak ere eskaintzen dira, adibidez: Kontzeju Irekikoko lehendakaria izateko hautagaia aurkeztea edo alderdi politiko, federazio edo koalizioen hautagaien aurkezpena, Batzordeko lehendakari eta 4 bokal izateko,

bai eta Kontzejuko lehendakariaren egiaztagutuna eta kontzejukidearen egiaztagutuna ere.